


# zumaiia

# ZUMAIIA

Zumaiako Uri Buru Batzarra zurekin  
EAJ-PNV Eusebio Gurrutxaga 6, 20.750 Zumaia Tfnoa: 943-861496 eajzumaiia@euskalnet.net

## HEMEN

denok dugu lekua



## AQUÍ

cabemos todos

# EUSKAL HERRIAREN ALDE LANEAN



Batzuen lana

Gure eguneroko lana

### Gora San Telmo!



#### FESTA BAI, BOZKA ERE BAI

Unean uneaz gozaten jakitea birtutea da. Horregatik, festetan zuen indar guztiak jarri eta ongi pasatzera gonbidatzen zaituztegun bezala, bizi dugun momentu erabakigarriak eskatzen duen erantzukizunarekin bozkatzera animatu nahi zaituztegu. Ez utzi beste batzuen eskuetan zuk zeuk bizi eta erabaki dezakezuna.

#### DISFRUTA Y VOTA

Saber disfrutar del momento es una virtud. Por ello, al igual que os invitamos a gozar de las fiestas al máximo con todas vuestras fuerzas, os animamos a ir a votar con la responsabilidad que exige el momento crucial que estamos viviendo. No dejes en manos de otros lo que puedes vivir y decidir tú.



## MARKEL OLANO

### Diputatu Nagusi izateko hautagaia

“Daukadan guztia emango dut alderdikideei eta gugan konfidantza jarri duten herritarrei hutsik ez egiteko”

Gipuzkoa Europako herrialderik aurreratuenen pare jartzea du helburu, Diputatu Nagusi izendatzen badute. Ilusioz helduko dio karguari.



Badakigu nork bere buruaz hitz egitea ez dela erraza izaten baina, nola aurkeztuko zenioke zeure burua balizko botuemaile bati?

EAJ-PNV-k herri honentzat duen proiektuaren parte naiz. Ez dut ibilbide pertsonaletan sinisten. Herritarrak, botuemaileak izan ala ez, ni herri honen eta gipuzkoarren alde apaltasunez lan egiteko prest dagoen pertsona bat bezala ikustea nahiko nuke.

Gazte-gaztetatik alderdiaren bitartez Herriarekin konprometitutako gizona; zer izan da zuretzat EAJ-ko gizon-emaumeek, aho batez, Gipuzkoako Ahaldun Nagusigai izendatzea?

Ohorea eta ardura handia aldi berean. Daukadan guztia emango dut alderdikideei eta gugan konfidantza jarriko duten herritarrei hutsik ez egiteko. Gipuzkoarren alde herri politika sendo eta eraginkorrek garatzeko konpromisoa hartu dugu.

#### BAKEA BIDERATZEA ETA GARAPENA LEHENETSIZ

Zer helburu izango ditu zuk burututako Foru Aldundiak datozen urteetan?

Alde batetik, Euskal Herriaren bakebideratzearen eta normalizazio politikoaren aldeko apustua egin nahi dugu. Horretarako, Juan Jose Ibarretxe Lehendakariaren bidelagun izango gara.

Bestaldetik Gipuzkoa, gizarte eta ekonomia garapenari eta bizitza kalitateari dagokionez, Europako herrialderik aurreratuenen parean kokatzea da gure helburua.

Ikuspegi horretatik, zein ildo nagusi jorratu beharko dira Gipuzkoako Foru Aldunditik?

EAJ-PNVk Gipuzkoarentzat duen proiektuak bost lehentasun ezarri ditu hurrengo legegintzaldirako:

1. Gipuzkoako enpresa eta ekonomia sarearen berrikuntza bultzatu eta babestea.
2. Gizartekintza eredu eramangarri bat garatzea behar gehien dituzten pertsonentzat.
3. Garraio azpiegitura eramangarria eta zerbitzuak lantzea. Bereziki, garraio publikoari lehentasuna emango zaio datorren legegintzaldian.
4. Euskararen eta euskal kulturaren alde politika zuzena egingo dugu; bereziki euskarazko kultur produkzioa indartu behar dugu.
5. Gipuzkoaren lurralde oreka zaindu egin behar dugu. Bailara bakoitzaren garapena bultzatuko du.

#### PROIEKTU SENDOA ETA GAITASUN HANDIKO GIZATALDEA

Horretarako guztirako zer eskaintzen dio EAJ-k Gipuzkoako gizarteari?

EAJ-PNV-k proiektu sendo bat landu du hauteskundeetara begira. Horretarako hiru bide ezberdin erabili ditugu: lehenik aditu talde batekin lanean aritu gara, bigarrenik egungo Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradun politikoen laguntza guztia izan dugu eta, hirugarrenik, Gipuzkoa herriz herri bisitatu dugu eta bertako udal arduradun eta gizarte eragileekin hitz egin dugu Gipuzkoa sakonean ezagutu eta Gipuzkoako herrien behar eta erronkak gure proiektuan txertatzeko. Proiektu sendo bat izateaz gain gaitasun handiko gizatalde bat dugu proiektu hau aurrera eramateko.

“Herritarrek ni herri honen eta gipuzkoarren alde apaltasunez lan egiteko prest dagoen pertsona bat bezala ikustea nahi nuke”

EAJ-ko burukide izan zaren urte hauetan kultura, euskara eta hezkuntza arduraduna izan zara; aginte lekuetatik gai hauek gutxietsi edo alboratu egiten direla leporatu izan zaigu sarritan, hirigintza eta “asfaltoa” lehenetsiz...

Gipuzkoak duen aberastasunik handiena bere pertsonak dira. Zalantzarik gabe gipuzkoarrok azpiegitura eta zerbitzu aurreratuak behar ditugu alor ezberdinetan. Baina, herri baten bizitza eta garapenean hizkuntza, hezkuntza eta kultura erabakiorrak dira; ez dira bigarren mailako alorrak. Gure hizkuntza eta kultura zaindu eta babesten ez baditugu ez dugu herri bezala etorkizunik izango.

#### DATORREN LEGEGINTZALDIA: “ERABAKIGARRIA”

Nola definituko zenuke datorren legegintzaldia?

Datorren legegintzaldia erabakigarria gertatuko da bakerako eta herri honen normalizazio politikorako. Erabakiorra izango da baita ere Gipuzkoak dituen erronka estrategikoak gauzatzeko. Erronka hauei aurre egiteko bidea taldeana da: erakunde ezberdinen arteko lankidetzaren eraginkorra lantzea.

Bati baino gehiagori entzun diogu, Markel Olanori entzutea berriro ere politikarekin ilusioz gertatzea dela; zer esango zenioke politikarekin etsita, politikaz aspertuta edo politikariek gogaituta daudela eta politikaz “paso” egiten dutela adierazten dutenei?

Herriz herri egin ditugun bileretan jende askorekin hitz egin dugu. Bereziki, gazte askorekin egon gara. Askok eta askok esan digute nazkatuta daudela

“Zumaiak garapen handia izan du. Hori ukazina da. Zumaiako Udalak eta EAJ-PNVk proiektu ugari dituzte Zumaiaren etorkizuna eraikitzeke”

politikariekin, alderdi politikoekin eta eztabaida antzuekin. Egoera hori aldatzea ez da egun batetik bestera egin daitekeen zerbait. Ni saiatuko naiz umiltasunez lan egiten, herritarrekiko etengabeko komunikazioa mantentzen eta autokritika ohitura ez galtzen.

#### “ZUMAIA NIRETZAT HERRI BEREZIA DA”

Zumaia leku berezia da Markel Olanorentzat. Txikitatik udak gure artean pasatzeaz gain azken urteotan bere eguneroko Bilborako joan-etorrietan Zumaia izan baitu oinarritzeko kanpalekua.

Zer iradokitzen dio Zumaiak Markel Olanori?

Zumaia niretzat herri berezia da. Ez bakarrik leku zoragarria delako, baizik jende zoragarria duelako. Ni baino lehenago nire gurasoak zumaiarrez maitemindu ziren eta haien eskutik niri ere gauza bera gertatu zitzaidan.

Zumaia nahiko ondo eta aspaldidanik ezagutzen duzu. Nola ikusten duzu gure herria?

Azken urteetan Zumaiak garapen handia izan du. Hori ukazina da. Zumaiako Udalak eta EAJ-PNV-k proiektu ugari dituzte Zumaiaren etorkizuna eraikitzeke. Inoiz baino hobeto ikusten dut Zumaiaren etorkizuna.

Zumaiako txokoren bat aukeratzeko-tan...

Zumaiak txoko ugari ditu atseginak, adibidez, Itzurungo hondartza. Baina Zumaiak duen gauzarik ederrena herritarrak dira. Horrekin geratzen naiz ni.

Markel Olano  
Candidato a  
Diputado General



#### Unido a Zumaia y a su gente

Zumaia ha sido destino veraniego para Markel Olano desde que sus padres decidieran pasar los meses más calurosos a unos cuantos kilómetros de su casa natal en Beasain. Para el candidato a diputado general, Zumaia es un enclave especial. Le gustó de pequeño, le encantó de adolescente y más tarde decidió quedarse. Ahora no manda el calendario. Su campamento base está en Zumaia, aunque tenga que desplazarse a Bilbao diariamente a trabajar. Hombre de partido, comprometido hasta la médula, busca la energía y el equilibrio necesarios entre la gran urbe del Guggenheim, el verde del Goierri y la playa de Itzurun. Y es que Olano es de los que saben coger el pulso en contextos bien diferenciados para después hacer su aportación en nombre del equipo. El éxito individual y las primeras planas no son lo suyo. Ni anteponer proyectos a personas. Pero del mismo modo que sus padres le trajeron a Zumaia, sus compañeros le llevan a una institución foral que necesita para su perfecto funcionamiento a muchas emprendedoras y competentes con altas dosis de calidad humana. Una virtud de la que no andan faltos los zumaiarres. Por eso ha elegido quedarse. Por sus ciudadanos y ciudadanas. Y porque el futuro que le augura a Zumaia es aún mejor.

